

ematen diozu zure bizitzari? Hiru osagarri horiek osatzen dute ongizate subjektiboa eta nazioarteko erakundeen aholkuen arabera, zoriontasun maila neurtzekoan hiru adierazle subjektibo horiek jaso behar dira».

Tokian-tokian, gainera, adierazle subjektibo horiek ezaugarri propioak hartzen dituzte. «Elkarriketatu bakoitzak bere buruaz hitz egiten du, bere ikuspegi propioetik. Bere bizitzaren gogobetetze mailaz galdetzen zaio jendeari zerotik hamarrera-ko eskala batean. Eta gerta daiteke ikuspegi objektibo batetik askoz hobeto bizi den norbaitek 'hiru' erantzutea eta baldintza objektibo okerragoak dituen beste batek 'zazpi' esatea. Esaterako, ikusten da latinoamerikarrek joera dutela zenbaki handiagoak esateko, izateko era eta faktore kulturala dela-eta. Japoniarrek, aldiz, joera dute zenbaki txikiagoak esateko, bertako kulturen gaizki ikusita baitago zure burua nabarmentzea. Faktore kulturelek ere bere partea daukate. Hori da ikerketen metodologian ikusten den akatsetakoa bat», agertu du Ansak.

ZORIONTASUNA NEURTZEA ZAILA DA

Adierazle subjektibo horien al- boan adierazle objektiboak ere hartzen dira kontuan, errenta maila, hezkuntza maila... Ansa- ren hitzetan, gainera, «benetako ongizate orokorraren argazki bat osatzeko biak behar dira, adierazle subjektiboak eta ob- jektiboak».

Izan ere, ez da batere samurra zoriontasuna neurtzea, ez dago erabateko tresna fidagarriarik zoriontasuna modu zorrotzean neurtzeko. «Zoriontasuna neur- tzea zaila da eta arazo metodo- logiko garrantzitsuak sortzen ditu. Badaude zoriontasuna neur daitekeela esaten duten defendatzaile sutsuak eta baita erabat eszeptikoak direnak ere. Eta, tartean, gainontzeko guz- tiak. Ni ere tartean kokatzen naiz. Gizarte baten ongizatea neurtzeko ez nituzke soilik adie- razle subjektiboak erabiliko, ez- ta soilik adierazle objektiboak ere. Iruditzen zait argazki osoa eta osatua emateko bi adierazle

motak beharrezkoak direla. Hori ez diot nik, ekonomialari sonatu askok defendatzen dute».

Ekonomia hazkundeak alde onak eta alde txarrak dituela na- barmendu du Ansak: «Estresa, zikinkeria, kutsadura, lan eta bi- zitzaren pribatua uztartzeko ezinta- suna... hazkundeak baditu alde txarrak ere. Beraz, ezin da esan errenta igoerarekin jendea era- bat gustura eta zoriontsu senti- tzen denik, badaude kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk ere. Horregatik garran- tzitsua iruditzen zait bi alder- diak neurtzea: nola bizi zara ikuspuntu objektibo batetik eta nola sentitzen zara ikuspuntu subjektibo batetik».

ERRENTAREN BANAKETA

Errentaren banaketa faktore oso garrantzitsua da zoriontasun maila neurtzeko orduan. «Ikus- puntu subjektibotik egiten di- ren ikerketek esaten dutenez, ongizate orokorra –pentsioak, osasuna, hezkuntza...– ziurtatu- ta dagoen herrialdeetan, Estatua horien bermatzaile den kasue- tan, zoriontasun maila handia- goa da. 'Ongizate estatu' deitzen diren horietan aldea nabarmena da, askoz lasaiago bizi dira. Errenta banatzeko tresna horiek oso indartsuak dira zoriontasu- naren ikuspuntutik. Gaur egun maiz entzuten da ongizate esta- tu horren baliabideak 'oso ga- restiak' direla eta horiek finan- tzatzeko arazo handiak daudela. Proposamenak bestelakoa be- harko luke: zoriontasun maila- rentzat, ongizate subjektiboa- rentzat, hain garrantzitsuak diren tresnak finantzatzeko bi- deak topatzeak izan behar du le- hentasuna», iritzi dio.

«Zoriontasuna neurtzeko garrantzitsua iruditzen zait bi alderdiak neurtzea: nola bizi zara ikuspuntu objektibo batetik eta nola sentitzen zara ikuspuntu subjektibo batetik»

Ongizate orokorra –pentsioak, osasuna, hezkuntza...– ziurtatuta dagoen herrialdeetan, Estatua horien bermatzaile den kasuetan, zoriontasun maila handiagoa da

Konfiantzatik hasten da dena

Maidar Iantzi Goienetxe

Hiru europa- rretatik bik pentsatzen dute emaku- mea ezin dela goi mailako zient- zialari izatera ailegatu. Andre eta gizonek berdin partekatzen dute iritzi hori. Hala dio Opi- nionWay institutu frantsesak L'Oreal Fundazioarentzat eginda- ko inkestak. 5.032 lagun elkarriz- ketatu dituzte Alemania, Britai- nia Handia, Italia eta Estatu frantses eta espainolean, estatu bakoitzeko mila, eta horietatik %33k soilik uste dute emakume- ak zientzian arrakasta izateko be- harrezko ezaugarriak dituela.

Beldurgarria iruditu zitzaidan eta albistearen zutabea moztu eta gorde nuen egunen batean horri buruz idazteko, nire ustez muinean dugun arazo bat isla- tzen duelako. Inkestan puntako zientzialari batek ze gaitasun be- har dituen galdetu diote jendeari eta gehienek bere buruarengana- ko konfiantza nabarmendu dute; izaera lehiakorra, anbizioa eta zientziarekiko interesa aipatu di- tuzte; eta, neurri ttipiangoan, per- tseberantzia, arrazionaltasuna, praktikotasuna eta zorroztasuna.

Esapide ezaguna da gauza bat lortzeko lehendabiziko baldintza lor dezakegula sinestea dela. Are gehiago, deusek ez gaitu bete- tzen egin ezin gurela uste ge- nuen gauza bat egun batean agian ahal gurela pentsatu, saiatu eta helburua betetzeak beste. Gidabaimenarekin pasatu zitzaidan; hegazkin bat maneia- tzea bezain ezinezko ikusten nuen, barreneko konfiantza falta horregatik, eta bolantea hartzea hegan egitea bezala izan zen. Adibide sinplea ematen du, bai- na azaldu nahi dudana da, inke- tarekin lotuz, aurreiritziak, izan kulturalak edo norberarenak (eta biak estu lotuta daude), horixe bertzerik ez direla, eta puskatze- ko daudela, behar diren bolante guztiak hartuta. Konfiantzatik hasten da dena. •